# Altsasu
# Alsasua

8. zenbakia 2006 abuztua/agosto

## 2006ko festen egitaraua, parte hartzailea

La Encina, peñak, jubilatuen kluba, Erkudengo Ama abesbatza, Haize berriak banda, elkarte gastronomikoak, Gaztetxea, Altsasuko Kirol Elkartea, Ihauterien aldekoak... herriko talde eta kolektibo asko dira aurtengo festen egitaraua prestatzen parte hartu dutenak.

Esan bezala, festen batzordea aipatu talde horien ordezkariek osatu dute, alkatea eta kultur teknikaria eta zinegotziarekin batera. Lehenengo bilera maiatzaren 24an izan zuten, azkena uztailaren 12an. Batzorde horrek hartu ditu festen gaineko erabaki guztiak.

Altsasuko festak, irailaren 13an hasiko dira, asteazkenarekin eta 17an bukatuko dira. Bi egunez pilota partidu profesionalak jokatuko dira Burunda pilotalekuan. Lehenengo egunean: Lasa III-Martinez de Irujo, Pascual-Titin-en kontra arituko dira; 14ean, berriz, Olaizola II-Begino, Bengoetxea VI-Belokiren kontra. Ostiral eguerdian mariatxiak entzuteko aukera izanen da; larunbatean Haize Berriak banda. Haurrendako agenda betea egonen da eta peñek hiru “bajadika” berezi eginen dituzte.

Festen aurretik, irailaren 2an nafarroako V. Zirko Jaialdia izanen da. Aurreko urteotan bezala, arratsalde gau partean hamaika talde arituko dira herriko kaleetan barrena. Abuztuaren 31tik irailaren 3ra garagardo azoka irekiko dute Altsasuko peñek.

Kultura zinegotziak, Jokin Zelaiak *“herrian gelditu eta festetan murgitzeko gonbitea egin du, festa egunak egun bereziak baitira”.*



Este año la programación de fiestas se ha elaborado de manera muy participativa, en la que grupos y colectivos de la localidad han tomado parte activamente, con voz y voto, en la Comisión de Fiestas.

Las fiestas comenzarán el 13 de septiembre miércoles y finalizarán el domingo día 17. Los partidos de pelota profesionales serán el 13 y el 14; no faltarán agradables conciertos al mediodia con mariachis (Oro de México) el viernes y son cubano (Son del río) el domingo.

Los niños y las niñas cuentan con una interesante agenda: el concurso de Play back el primer día festivo; el certamen de pintura infantil el viernes y el domingo el parque infantil con hinchables, cars.... etc.

*“Invitamos a la gente a que se quede en el pueblo; participe y disfrute de las fiestas, ya que son días muy bonitos en los que se crea una convivencia muy especial”*. Es el llamamiento que desde el área de cultura, el concejal Jokin Zelaia hace a los alsasuarras.

### AURKIBIDEA/ ÍNDICE

Zerbitzuak/Servicios 2
Udal bilkurak: gaiak
Plenos: temas tratados 3
Gure gaia/Reportaje
*Musika eskola berria*
*Nueva escuela de música* 4-5
Berriak/Noticias 6-11
Elkarrizketa/Entrevista
ACA/ADE 12



**Estudio sobre desigualdad de género** pag. 9

### Altsasun gertatzen diren genero desbedintasunak aztergai

Emakumearen Batzordearen eskaerari jarraikiz, genero desberdintasuna eta herriko emakumeen egoera aztertzen ari dira egunotan Altsasun. Guztira, 400 emakume elkarrizketatu nahi dituzte eta hausnarketarako 4 talde osatzeko helburua dute.Gure deia jasotzen baduzu, emaiguzu zure ikuspuntua, Altsasuko errealitatea zein den ezagutzeko oso baliagarria izango da eta!

Servicios Municipales/Udal zerbitzuak: KIROL ZERBITZUA/SERVICIO DE DEPORTES

## KIROL ZERBITZUA/ SERVICIO DE DEPORTES:

Erkuden 8 behea. Tel. 948-563 410

**deportes@alsasua.animsa.es**

Kirol teknikaria/técnica deportiva: **SARA SALAZAR**

**Kirol azpiegituren erreserba eta alokairua/ Reserva y alquiler de instalaciones deportivas:**
Zelandi kiroldegia/Polideportivo Zelandi (tel 948.468.134)

## EGINKIZUNAK/FUNCIONES:

**Kirol egitarauen kudeaketa**(udal kirol eskaintza)/Gestión de programas deportivos (oferta deportiva municipal)

**Kirol azpiegituren kudeaketa**/Gestión de instalaciones deportivas.

Kirol elkartegintzaren sustapena (kirol federatua...)/ Fomento del asociacionismo deportivo (deporte federado)

Kirol talde eta elkarteendako diru laguntza deialdia/ Convocatoria de subvenciones a clubes y asociaciones deportivas.

Kirol ikuskizunen promozioa eta antolakuntza/ Promoción y organización de espectáculos deportivos.

Aholkularitza teknikoa/Asesoramiento técnico.

## PARTEHARTZEA/PARTICIPACIÓN:

KIROL ESKOLAK/ ESCUELAS DEPORTIVAS

| | | |
|---|---|---|
| Saskibaloi eskola | 95 | Esc. baloncesto |
| Futbol eskola | 134 | Esc. futbol |
| Atletismo eskola | 23 | Esc. atletismo |
| Txirrindularitza | 23 | Esc. ciclismo |
| Pilota eskola | 59 | Esc. pelota |
| Irristaketa eskola | 43 | Esc. patinaje |
| Tenis eskola | 46 | Esc. tenis |
| Taekwondo | 31 | Taekwondo |
| Soinketa erritmikoa | 35 | Gimnasia rítmica |
| Psikomotrizitatea | 22 | Psicomotricidad |
| GUZTIRA: | 511 | TOTAL |

GAZTE ETA HELDUAK/JÓVENES Y ADULTOS

| | | |
|---|---|---|
| Aerobic | 69 | |
| Mantentze gimnasia | 80 | gimnasia manteni. |
| Dantza latinoak | 25 | bailes latinos |
| Gimnasia lehuna | 49 | gimnasia suave |
| Indoor zikloa | 50 | ciclo indoor |
| Pilates | 30 | |
| Sabel dantza | 20 | danza del vientre |
| GUZTIRA | 341 | TOTAL |

Helduen areto futoboleko txapelketa/ Campeonato futbol sala adultos 450

# guía de servicios

# zerbitzuen gida

012 INFO-LOCAL **TELEFONOAN UDALA DUZU**

## Altsasuko Udala Ayuntamiento de Alsasua

Udal bulegoak/Oficinas Municipales 948 562 161 / . . 948 562 200
Fax . . . 948 563 855

Iortia Kulturagunea/ Centro Cultural Iortia. . . . 948 564 272

Ludoteka/Ludoteka . . . . . 948 467 471

Centro Altzania Zentrua . 948 467 594

Emakumearen bilgunea/ Aula de la mujer. . . . . . . . 948 564 823

Gaztedia bulegoa / Oficina de Juventud . . . . . 948 564785

Bake epaitegia/ Juzgado de Paz. . . . . . . . . 948 562860

Liburutegia/Biblioteca . . 948 564 834

Helduen heziketa/ Educación de adultos. . . . 948 564 831

Kirol Patronatua/ Patronato de Deportes . . 948 563 410

Igerilekuak/Piscinas. . . . . 948 562 950

Udaltzaingoa/ Policía Municipal . . . . . . . 629 202 414

Musika Eskola/ Escuela de Música . . . . . . 948 564 977

Adinduen egoitza/ Residencia de ancianos. . . 948 468 107

Haurtzaindegia/ Guardería. . . . . . . . . . . . . 948 564 422

## Sakanako Mankomunitatea/ Mancomunidad de Sakana

Idazkaritza/Oficina . . . . . 948 464 867
Fax . . . . . 948 464 853

Euskara Zerbitzua/ Servicio de Euskara . . . . . 948 464 840

Kirol Zerbitzua/ Servicio de Deportes . . . 948 464 866

Nekazaritza Ganbera/ Cámara Agraria . . . . . . . . 948 567 204

Mendi atala/ Sección de Montes. . . . . . 629 480 069

Etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa/Oficina de Rehabilitación de viviendas . . . . . . . . . . 948 576 293

## Osasun etxea/ Centro de Salud

Altsasu/Alsasua . . . . . . . . 948 564966

Etxarri (Izargi), Emakumeari laguntzeko zentroa/ Centro de Atención a la Mujer Etxarri (Izargi) . . . . . . . . . 948 567063

## Botikak/ Farmacias

Guardia-botikara joan aurretik ondoko telefonora hots egin: 948 226 000

Antes de acudir a la farmacia de guardia llama al siguiente teléfono: 948 226 000

## Gizarte zerbitzuak/ Servicios sociales

Altsasu. . . . . . . . . . . . . . . 948 467 662

## Larrialdiak/ Urgencias

SOS Nafarroa/SOS Navarra.......... 112

Gas Navarra, larrialdiak/ Urgencias, Gas Navarra....900 750 750

Suhiltzaileak (Alts)/ Bomberos (Als) ..............948 564 832

Nafarroako ospitalea/ Hospital de Navarra .......948 422 100

Bideko Ama Birjina Ospitalea/ Hospital Virgen del Camino ......948 429 400

DYA (Nafarroa/Navarra) ..948 171717

DYA (Sakana)..................948 468 822

Gurutze Gorria/ Cruz Roja.........................948 222 266

Guardia Zibila (Alts)/ Guardia Civil (Als) ...........948 562 004

## Garraioak/ Transportes

Errepideetako informazioa/ Información en carretera: 948 237 000 / 948 427 500

Iruñeko bus geltokia/ Estación de autobuses de Pamplona . . . . . . . . . 948 223 854

Noiango aireportua/ Aeropuerto de Noaín . . . 948 168 700

Taxi (Alts/Als) . . . . . . . . . 948 467 069

## Lan Mundua/ Mundo laboral

Nafarroako Enplegu Zerbitzua/ Servicio Navarro de Empleo . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 948 562 754

AES. . . . . . . . . . . . . . . . . . . 948 468 307

ELA. . . . . . . . . . . . . . . . . . . 948 467 338

LAB . . . . . . . . . . . . . . . . . . 948 564 175

UGT . . . . . . . . . . . . . . . . . . 948 467 120

**ALTSASUKO UDAL ALDIZKARIA / REVISTA MUNICIPAL DE ALSASUA**

**nº 8. zk.**

**2006ko abuztua agosto 2006**

Argitaratzailea / editor:
**ALTSASUKO UDALA**
Garzia Ximenez z/g
ALTSASU 31800
Tel. 948-562 161

Lege gordailua: NA-945/2004



# udal bilkuren gai ordenak

## temas tratados en los plenos

* Ez ohiko Udal bilkura / Pleno extraordinario    # Pleno suspendido / bertan behera utzia

### 2006/02/24

1.- **Obras de piscina cubierta**: acuerdo que haga constar la voluntad de financiar las obras y compromiso de financiación de las mismas.

2.- **Colaboración con la Fundación "Banco de Alimentos"**.

3.- **MOCIONES**:
- Intención de iniciar actividad de incineración en Olazti (Aralar).
- 75º Aniversario de la II República (IU).
- Declaraciones sobre violencia contra las mujeres (PSOE).

### 2006/03/31

1.- Aprobación inicial del expediente de **modificación presupuestaria nº 1** al Presupuesto prorrogado.

2.- **Aprobación del expediente** de contratación de las obras de ejecución del **Proyecto de Urbanización del Sector 5 "Lezalde"** del Plan Municipal de Alsasua.

3.- **Solicitud de revisión de oficio de la Reparcelación Voluntaria de la UE 17 "Zelai"** del Plan Municipal de Alsasua.

4.- **MOCIONES**:
- Mugarik Gabe - Brigadas Internacionales de Paz (IU).
- Conexión alta velocidad e "Y" Vasca (IU).

### 2006/04/28

1.- Aprobación inicial de la **modificación del Plan Municipal de Alsasua** promovida por ADIF.

2.- **Aprobación inicial de la Plantilla Orgánica** de 2006.

3.- **Aprobación inicial de los Presupuestos de 2006** y sus Bases de Ejecución.

### 2006/05/26

1.- Resolución de alegaciones y aprobación definitiva de la **Ordenanza municipal de Porches.**

2.- Aprobación definitiva del **Proyecto de modificación de Estatutos de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Base** de Alsasua, Olazagutía y Ziordia.

3.- Fijación de los **precios de entradas y abonos de las piscinas de Dantzaleku** para la temporada 2006.

4.- **Fijación de precios y tarifas para actividades deportivas 2006.**

5.- **Fijación de precios "Udan Euskaraz" 2006.**

6.- **MOCIONES**:
- PSOE: Despidos en Igartex.
- Aralar: Proceso democrático en Euskal Herria.

### 2006/6/28*

1.- **Adjudicación de las obras de ejecución del Proyecto de Urbanización del Sector 5 "Lezalde"** del Plan Municipal de Alsasua.

2.- **Aprobación inicial de la Ordenanza** reguladora de la **colocación de casetas prefabricadas en suelo urbano.**

3.- **Cancelación condición resolutoria en finca registral nº 5407 en el paraje de Ibarrea.**

4.- **Aprobación de las bases del concurso** para la aprobación del proyecto que ha de regir la **concesión administrativa para la utilización privativa** de la parcela 14.1 del Proyecto de Reparcelación del Sector 3 **"Santo Cristo de Otadia"** del Plan Municipal de Alsasua.

5.- **Rectificación de errores al acuerdo de fijación de los precios de entradas y abonos de las piscinas de Dantzaleku para la temporada 2006.**

6.- **MOCIONES**:
- IU: Transporte ferroviario en Sakana.


## Altsasuko Emakumeak
Hogei urteko Bizitza, Hogei urteko Historia

## Mujeres de Altsasu
Veinte años de Vida, Veinte años de Historia

LIBURUA SALGAI IORTIAN

**12,00 €**

LIBRO A LA VENTA EN EL IORTIA








Araceli
Erdozia
Anso



Musika Eskola berriak ondoko gela hauek izan beharko ditu, besteak beste: erabilera anitzeko bi gela handi (100 $m^2$), liburutegi-fonoteka bat (40 $m^2$), irakasle gela bat (30 $m^2$), banakako instrumentu klaseetarako 10 gela(15 $m^2$) eta ikasketa ez instrumentaletarako 4 gela (25 $m^2$).

# Lehiaketara atera da musika eskola berriko proiektua idazteko lana

*Proposamenak aurkezteko epea abuztuaren 21ean bukatuko da. Ondoren Udal ordezkariek, aurkeztutako proposamenak aztertu eta gero, proiekturik egokiena hautatuko dute*

Uztailaren 17ko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen lehiaketara ateratzea Altsasuko Musika Eskola berriko proiektuaren idazlana eta obraren zuzendaritza. Musika Eskola berriak Mojen eraikineko 2. eta 3. solairuak hartuko ditu.

Eraikina egokitzeko orduan, adjudikazio hartzaileak kontuan hartu beharko du hosgabetze edo intsonorizazioa erraztuko duten materialeak erabiltzea, gela bateko hotsek ondokoetan eraginik izan ez dezaten.

Musika Eskola berriak, besteak beste, ondoko gela hauek izan beharko ditu: erabilera anitzeko bi gela handi (100 $m^2$), liburutegi-fonoteka bat (40 $m^2$), irakasle gela (30 $m^2$), banakako instrumentu klaseetarako 10 gela(15 $m^2$) eta ikasketa ez instrumentaletarako 4 gela (25 $m^2$).



Mojen eraikinak gaur egun duen banaketa. Musika eskola berriak planoko gela zuriak hartuko ditu, 2. eta 3. solairuetan.

## Solairuen banaketa

Musika eskola berriko sarrera sarbide nagusia izanen da, Burunda kalekoa, hain zuzen ere. Bertan eskailerak daude eta igogailu bat ere egonen da.

Bigarren solairuan ondoko gela hauek jartzea aurreikusten dira: erabilera anitzeko bi gelak, banako ikasketarako 10 klaseak eta komunak. Hirugarren solairuan, berriz, ondoko hauek: zuzendaritza bulegoak, liburutegi-fonoteka, irakasle gela eta komunak. Nola nahi ere, beharren arabera bestelako banaketa bat aztertu daiteke, hau ez baita behin betiko banaketa, abiapuntu bat baizik. Izan ere, proiektua idatzi aurretik musika eskolako langileekin eta lehiaketa hartzaileare-kin biltzeko asmoa azaldu du alkateak.

## Lehiaketara aurkezteko epea

Proposamenak aurkezteko epea abuztuaren 21ean bukatuko da. Ondoren Udal ordezkariek, aurkeztutako proposamenak aztertu eta gero, proiekturik egokiena hautatuko dute. Adjudikazio hartzaileak 3 hilabeteko epea izanen du proiektua idazteko.

Epe hori bukatutakoan egindako proiektua begi onez hartzen badu udalbatzak, egitasmoa onartzearekin batera, obren pliegoa onartu eta lanen deialdia eginen du.

# Luz verde para la futura escuela de música

*Ha salido a concurso la redacción del proyecto y dirección de obra de la futura escuela de música.*

## Musika eskola berria egitea, ezinbestekoa

Musika eskolaren azpiegitura hobetzea ezinbestekoa da Altsasuko alkatearendako: "musika eskolak urte asko daramazki ikasle kopuru handiarekin. Lan handia eta ona egiten dute, baina sorreratik eskolaren azpiegitura eskasa izan da". Egitasmo berriarekin, beraz, behar bezalako azpiegiturak izatea bultzatu nahi du Altsasuko Udalak. "Eskolako langileek egiten duten lan bikaina eta eskola beraren garapena, azpiegiturekin bat egitea da gure nahia".

Asun Fernandez de Garaialdek 0-3 zentroari buruz ere egin du aipamena. "Musika Eskola lekuz aldatzen denean, Ikastola ere ateratzekotan izanen da, horrela Navarro Villoslada izanen da 0-3 zentroa hartuko duen eraikina, Nafarroako Gobernuak exigitzen duen moduan" azaldu du alkateak.

La Junta de Gobierno del 17 de julio aprobó el pliego de cláusulas técnicas para el contrato de redacción del proyecto y dirección facultativa de la obra de acondicionamiento de la 2ª y 3ª planta del antiguo colegio "Nuestra Señora de la Compasión" como escuela de música en Alsasua. El plazo para la presentación de propuestas finalizará el 21 de agosto. Una vez adjudicada la redacción del proyecto de remodelación la alcaldesa ha mostrado interés en reunirse con las partes: el equipo de arquitectos y los responsables de la escuela de música para concretar bien todos los detalles y necesidades de la futura escuela.

Una de las características que recoge el pliego es la utilización de elementos constructivos que garanticen la adecuada insonorización de los locales, de manera que la actividad musical que se desarrolle en un local no afecte a los otros.

## Distribución de espacios

A continuación numeramos los espacios previstos para la nueva escuela: dos salas polivalentes (100 $m^2$) para usos docentes, académicos y para actividades instrumentales y vocales de grupos; biblioteca, videoteca, fonoteca con superficie de 40 $m^2$; sala de profesores (30 $m^2$); aseos y servicios; al menos 10 aulas de enseñanza instrumental individual (15 $m^2$) y como mínimo 4 aulas de enseñanza no instrumental (25 $m^2$). Los espacios citados irán distribuidos en las dos plantas.

## Apuesta de mejora

Con esta decisión el Ayuntamiento da luz verde para que la mejora de infraestructuras en la escuela de música de Alsasua sea una realidad, algo que hasta la fecha no ha sido posible. En palabras de la alcaldesa la reforma es justa y necesaria: "La escuela de música lleva muchos años con un número importante de alumnos y alumnas. La labor del profesorado se nota en el pueblo, pero si que es cierto que desde surgió la escuela las infraestructuras en ningún momento han sido las adecuadas. Por eso se plantea hacer una mejora en las mismas para que la buena labor y evolución vayan unidas a unas adecuadas instalaciones".

Con esta decisión en un futuro Navarro Villoslada quedaría libre ya que la Ikastola saldrá también para ir a su propio edificio. De esta manera ya se puede plantear el 0-3 en Navarro Villoslada tal y como exige el Gobierno de Navarra.



## Altsasuko trafikoa eta mugikortasuna




Marrazki lehiaketaren bitartez haurren nahia ezagutu dute antolatzaileek. Goian bi marrazki ageri dira: ezkerrekoan, herria nolakoa den adierazten duen marrazkian autoak ageri dira; eskubikoan, berriz, autoak desagertu eta berdegune eta aisaldi guneak nagusi ageri dira.

# Mugikortasuna, trafikoa eta aparkalekuei buruzko azterketaren diagnosia

Altsasuko mugikortasuna, trafikoa eta aparkalekuen azterketak hainbat alor jorratu ditu. Batetik, Altsasuko herriari buruzko datu asko jaso ditu azterketa egileak, Leber Planificación e Ingeniería S.A. enpresak. Bestetik, aparkalekuen eskaintza eta eskariaren arteko harremana ezagutzeko zenbait kale neurketa egin ditu. Hirugarrenik, haurren iritzia ezagutzeko, marrazki lehiaketa bat bideratu dute. Horiez gain, mugigarritasunari buruzko jardunaldia egin zen maiatzean. Eta, orain, uztailean, diagnosia aurkeztu dute.

## Azterketaren diagnosia

Ekintza plan estrategirako ondoko proposamen hauek egiten dituzte: batetik, trafikoa mantsotzea motor gabeko mugikortasuna bultzatzeko; bestetik, autoz erdigunera egiten diren desplazamenduak murriztea; hirugarrenik, kotxea ez den garraiobide motak bultzatzea; eta, azkenik, herrian bizi eta lan egitea orekatzea, joan-etorri kopurua gutxitzeko.

## Isun eta istrupuen azterketa

Istripuen azterketan zera nabarmentzen du txostenak: istrupu gehien Alzania eta Garzia Ximenez kaleetan gertatzen direla; trafikoa handia eta ikusgaitasun txikia den zenbait bidegurutzetan, hain zuzen ere. Altsasun jartzen diren isun gehienak ere kale horietan jartzen dira;baita ondoko hauetan ere: Bakea, Iortia, San Juan, Isidoro Melero, Intxaurrondo eta Zelandin.

## Aparkalekuak

Aparkalekuen gaia luze eta sakon aztertu dute. Aparkalekuen eskaintza eta kopuruari buruz honakoa ondorioztatu dute: Altsasun bizi direnek ez dutela gauez aparkatzeko arazorik izaten. Nola nahi ere, bataz besteko emaitzek agerian uzten dute aparkaleku eskasia ondoko bi gune hauetan: Ferialeku-Aldautian eta Intxostia-Bakea-Pilotalekun.

## Mugigarritasunari buruzko jardunaldia

Maiatzaren 15ean Altsasuko Udaleko ordezkariak eta hainbat erakunde eta auzoetako ordezkariak egun osoko bilkura egin zuten Gure Etxea eraikinean. Asko izan ziren landu zituzten esparruak. Altsasuren identitatea aztertzerakoan Altsasu zer den, zer nahi duten izatea, aukerak eta beharrak aipatu zituzten. Bizi kalitateaz aritzean, nola neurtzen den, zein elementu dauden eta zein biztanle mota dauden jarri zuten mahai gainean. Altsasuko espazio publikoetan, kiroldegian, bidegorrien sarea edo parkeetan oinez nola gozatzen den ere hizpide izan ziren.

## Marrazki lehiaketan parte hartu zuten 60 haurrek bi marrazki egin zituzten

Marrazki batean herria nolakoa den azaldu behar zuten; bigarrenan, berriz, nola gustatuko litzaiekeen izatea. Antolatzaileen iritziz ondorioak oso garbiak izan dira: lehenengo marrazkietan errepidea eta honen inguran auto asko marraztu zituzten. Herria nolakoa gustatuko litzaiekeen islatzen duten marrazkietan, berriz, jolas-tokiak eta ur-guneak ageri dira errepidearen inguruetan. Marrazkien bitartez, beraz, haurren nahia zein den oso garbi islatu da: berdegune garbiak eta autoak desagertu.



Mugigarritasunari buruzko jardunaldiko une bat.



# Tráfico y aparcamiento en Alsasua: diagnosis y marco estratégico



Según los dibujos, los escolares quieren menos coches y más zonas verdes y espacios de ocio.

Dentro del estudio sobre movilidad, tráfico y aparcamiento son cuatro las estrategias de actuación propuestas. La empresa que ha realizado el estudio, LEBER, Planificación e Ingeniería S.A., propone el siguiente marco estratégico de actuaciones: por una parte, ralentizar el tráfico para potenciar los modos no motorizados. Por otra, reducir desplazamientos internos en coche, especialmente al centro. En tercer lugar, fomentar alternativas viables al coche; y por último, equilibrar la relación residencia empleo y substituir desplazamientos. El Ayuntamiento pretende poner en marcha algunas de las propuestas que recoge el estudio este próximo otoño.

Para llegar a las propuestas citadas la empresa ha realizado diferentes actuaciones. Ha recabado infinidad de datos sobre el municipio, llevado a cabo varias mediciones para estudiar el funcionamiento de los aparcamientos, organizado un concurso de dibujo infantil y guiado una jornada sobre movilidad.

## Aparcamientos

Respecto a la dotación de aparcamientos el estudio concluye que “los turismos de residentes en Alsasua no encuentran dificultades para aparcar durante la noche, si bien el balance teórico municipal total refleja un déficit de plazas en la zona de las calles El Ferial-Aldautia e Intxostia-La Paz-Frontón”.

Respecto a las pautas de aparcamiento en el viario, el estudio resuelve que los residentes son los que más utilizan el aparcamiento viario. “Las calles más cercanas a la zona comercial y de servicios del municipio, cuentan con un gran número de foráneos, con estancias cortas que utilizan el aparcamiento para realizar todo tipo de gestiones. La zona del casco viejo de Alsasua presenta más zonas libres que la del “ensanche”, que en ciertas horas del día tiene todas sus plazas ocupadas”. El estudio cita la saturación de la calle San Juan y recoge que es en ésta donde se da el mayor número de vehículos aparcados de manera ilegal.

Respecto al a accidentabilidad el estudio cita 4 cruces conflictivos: Garzia Ximenez con Santo Cristo de Otadia y varias intersecciones entre la calle Alzania con las calles San Juan, Erkuden y La Paz. “Se trata de calles con mucho tráfico y visibilidad reducida en los cruces. La señalización viaría es deficiente, tanto la vertical como la horizontal”.

## Evolución de la población y motorización

En los últimos 20 años la población ha aumentado un 10%. Se ha incrementado un 30% el número de familias (debido a la disminución del tamaño medio de la unidad familiar). Y el número de vehículos ha aumentado un 77%.

## Jornada de reflexión

Con el fin de recoger la opinión de la ciudadanía, el 15 de mayo tuvo lugar una jornada de reflexión sobre la accesibilidad en Alsasua, con la participación de grupos políticos y personal técnico del Ayuntamiento así como representantes de la Asociación de Comerciantes y de diferentes barrios de Alsasua. Se trataron temas como calidad de vida, política viaría, urbanismo, transporte público, comercio y empleo.

## Más zonas verdes y menos coches

Dentro del Estudio de Movilidad que está realizando la empresa Leber, en el concurso de dibujo organizado por el Ayuntamiento, un total de 60 alumnos de 4º de Primaria del Colegio Público Zelandi y la Ikastola Iñigo Aritza de Alsasua aportaron su visión de cómo ven la villa y cómo les gustaría que fuera. A la vista de los trabajos presentados, quieren menos coches y mas zonas verdes y espacios de ocio que los actuales, propuestas de las que tomará buena nota el Ayuntamiento según indicó la alcaldesa.

baso lanak - trabajos forestales

# Hobekuntza eta garbiketa lanak egiten ari dira dermioan

Altsasuko Udala hobekuntza lanak burutzen ari da basoan. Herriko dermioan burutzen ari diren lanak ondokoak dira: Marmolazpin eta Kostakosoin, baso garbiketa lanak; Santaluziasakanen, sastrakakentzeak; Basomuturren, Basoitxin eta Eguberan beharrezkoak ez diren itxiturak kentzea eta Arnazkan pista berri bat egitea. Aipatu ditugun lanak 2005-2006 urteetako egitasmoaren barruan sartzen dira. Aurrekontua 43.000 euroko da.

Esan bezala, lan batzuk egin dituzte eta beste batzuk egiteko bidean dira. Udaleko basozaina dabil zeregin horretan. Azkeneko Gobernu batzordean, berriz, horietako bi lan adjudikatu zituzten: Excavaciones Olloquiegui S.A. enpresak Arnazkako pista eginen du 25.085 euroren truke eta Fermin Larraintzarrek Santaluziasakango sastrakak kenduko ditu 4.000 euroren truke.

Aipatu lanek, gainera, segida izanen dute heldu den urtean: Santaluziasakanen itxitura tradizionalarekin itxiko dute dermioa. Balankalekun, berriz, pista berri bat eginen da. Balankalekun dagoeneko margotu dituzte salgai jarriko diren pago eta izai gorriak. Eta lote horiek ongi saldu ahal izateko, pista bat egitea beharrezkoa ikusten du Altsasuko Udalak.

## Baso garbiketa lanak eta itxiturak kentzea

Marmolazpin eta Kostakosoin garbiketa lanak egin dituzte. Zuhaitz kaxkarrenak moztu dituzte sendoenen mesede, horrela baso horretako egur produkzioa bultzatu nahi dute: ale berriak jarriz eta basoa garbi mantenduz.

Eguberan, berriz, zegoen itxitura kendu dute 20 urteko zuhaitz gazteek ez baitute itxituren beharrik. Gauza bera eginen da Baso Itxiko Dameroan, bertan dauden lizar, ezki, haritz... eta bestelako zuhaitzek 2 metroko altura dutelako; eta, Basomuturreko itxitura ere jaso eta zabortegira botako dute, bertako haritzak handitu direlako.

## Santaluziasakanen, sastraka-kentzea

Altsasun 1959. urtean zegoen abelburu kopurua kontutan hartzen badugu erdira jaitsi da gaur egun kopuru hori. Ardiak, berriz, ez dira horrenbeste jaitsi, guztira 800 ardi daude. Herri lurretan dagoen larre bakanetakoa Santa Luzia eta San Pedro ingurua da. Herriko abeltzainak elkarte batean eratu ziren eta haiek dira Santaluziasakango erabiltzaileak. Aspaldi eskatu zuten bertan hobekuntzak egitea, izan ere, geroz eta zuhaixka, sasi eta sastraka gehiago dago eta.

Hori dela eta uztailaren bigarren hamabostaldian hasi ziren sastraka-kentze lanak. Lan hori, esan bezala, Fermin Larraintzar burutzen ari da.

## Arnazkan, pista berria

Arnazkako maldan 22ha zabalera duen landaketa dago —orain 25 urte landatutako haritz amerikarrak, pinuak eta alertzeak. 2004an garbiketa lanak egin zituzten ale onenak indartzeko, baina bota zituzten zuhaitzak bertan daude oraindik lurrean botata.

Arnazkako pistak honako abantaila hauek ekarriko ditu: batetik, botata dauden enborrak jaso ahal izanen dira hori dela eta suteen arriskua jaitsiko da. Bestetik, ur-biltegiaren gaineko hariztian zenbait landaketa egin ahal izanen dira, oso leku egokia baita. Eta, azkenik, herri-gunetik gertu dagoen basoaren erabilera bultzatuko da, onddoak biltzeko eta pasiatzeko bidea zabalduz.

*El próximo año pretenden seguir llevando a cabo más actuaciones: ejecución de una nueva pista forestal en Balankaleku y cierre del pastizal de Santaluziasakan.*



El trabajo de desbroce en Santaluziasakan se ha llevado a cabo durante la tercera semana de julio.

En el monte comunal de Altsasu se están llevando a cabo las siguientes mejoras: clareo en Marmolazpi y Kostakosoi con plantación de frondosas en el primero; retirada de cierres en el *Damero* del monte cerrado, Egubera y Basomutur; desbroce mecanizado en el pastizal de Santaluziasakan y apertura de una nueva pista forestal en Arnazka, con cunetas y obras de drenaje.

Varias de las actuaciones están siendo realizadas por personal del Ayuntamiento. Por el contrario, la obra de construcción de la pista forestal de Arnazka ha sido adjudicada por 25.085 euros a Excavaciones Olloquiegui, S.A. y el trabajo de desbroce en Santaluziasakan a Fermín Larraintzar por 4.000 euros.

Son tres los objetivos que buscan estas obras forestales. Por una parte, con la nueva pista se podrá acceder a la ladera de Arnazka. Ésta cuenta con una gran riqueza forestal (23 ha de latizales bajos de coníferas y 2ha de robledales adultos). Así, esta pista facilitará la ejecución de trabajos selvícolas, prevención y extinción de incendios y para diversos usos sociales del monte, entre ellos la recolecta de hongos, paseos... ect.

Por otra parte el desbroce pretende habilitar el pastizal de Santaluziasakan para la práctica del pastoreo intensivo. Por motivos medioambientales, no se desbrozarán árboles y matas de enebro y espino de buen porte.

Por último, también se pretende disponer en las laderas frescas y con suelos profundos de Kostakosoi y Marmolazpi de arbolados que rentabilicen el potencial productivo que ofrecen, mediante limpia sistemática de los peores ejemplares y la plantación de especies frondosas nobles.

En los parajes de Egubera y Basomutur existen dos antiguos cierres de regeneración de más de 20 años de edad que no cumplen ya ninguna función de protección. El de Egubera ha sido retirado y el de Basomutur, junto con otro en el monte cerrado serán retirados. El alambre y los grampillones, ya muy oxidados, serán trasportados hasta el vertedero.

# Txuspo Poyoren eskultura Siets ondoan jarriko dute

Altsasuko artistaren eskultura Usolarraingo siets ondoan jarriko dute. ‘Casa árbol’ da arte lanaren izenburua eta izenak adierazten duen bezala, haur eta gazteek zuhaitzetara igo eta han etxetxoa egiteko ideia bereganatzen du. Egitasmoaren aurrekontua 51.430 eurokoa da. LEADER + programari esker 36.000 euroko diru-laguntza jaso du Udalak, hau da, aurrekontu guztiaren %70a, hain zuzen ere.

*Egitasmo honekin bi elementu batzen dira, ARTEA eta NATURA. Gure esku dago bi horien bizi iraupena.*

Herriko artistaren lana erosteko asmoa aurreko legegintzalditik dator. Hasiera batean Iortia kultur gune ondoan paratzeko asmoa zegoen, baina inguru horretan zuhaitz gutxi dagoenez lekuz aldatzea erabaki zuten. Azkenean, Dantzaleku-Usolarrain ingurune paregabean kokatuko dute, Sietsera joateko bidetik gertu. Errepidetik aise ikusiko dela adierazi dute arduradunek.

Urteko aurrekontuetan herriko artisten artelanak erosteko partida bat jartzeko konpromisoa du Udalak. Hala, Dora Salazarren ‘Alas’ eskultura lehena izan zen. Aurten, berriz, Koldo Arnanzen koadro bat erosi du Udalak.



Txuspo Poyoren ‘Casa árbol’ eskulturaren 1. maketa.

Eskultura jartzeko Usolarraingo haritz bat hautatu dute, alde guztietara ere, eskulturaren zama beronen egiturak hartuko du.

## La escultura ‘Casa árbol’ de Txuspo Poyo estará situada en Dantzaleku

Altsasu contará en breve con una escultura el artista local Txuspo Poyo. El presupuesto del proyecto es de 51.430 euros, pero cuenta con una subvención del programa LEADER+, del 70% .

La escultura estará situada cerca de las piscinas de Alsasua, al lado del siets, sobre un roble autóctono. No obstante, el peso de los cubos recaerá sobre el soporte de la escultura. Esta obra de arte recrea la idea de la casa árbol, muy relacionada con infancia y juventud y la pasión por subir a los árboles.

# Estudio sobre desigualdad de género

*El Ayuntamiento, a propuesta de la comisión de la mujer, está realizando un diagnóstico sobre la situación de la mujer y sobre las desigualdades de género en nuestro municipio.*

El Ayuntamiento, junto con otros organismos, lleva trabajando ya varios años para promover la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres en nuestra localidad. Este trabajo, poco a poco, se ha ido ampliando a distintos ámbitos de la realidad social; ya no sólo se dirige al colectivo femenino, sino que se extiende a toda la sociedad: a la propia administración, al empleo, la educación, el ocio, los cuidados y otros.

Esto ha hecho que se considere necesario redactar un Plan de actuación a medio plazo con el fin de que el trabajo a realizar sea más eficiente y pertinente con los objetivos marcados. Estos objetivos, que van a ser la meta a conseguir, deben ser lo más cercanos a la realidad que estamos viviendo y responder siempre a ella.

Por esto estamos realizando este diagnóstico y por esto necesitamos la colaboración de toda la ciudadanía de Altsasu. Queremos entrevistar a 400 mujeres y realizar 4 grupos de reflexión. Desde aquí os pedimos que, si van a entrevistaros u os llaman para participar en un grupo, respondáis a la llamada, ya que sólo podemos conocer la realidad de la igualdad de mujeres y hombres, si nos la contáis.



*Dei egiten badizugu, kontaiguzu zure ikuspuntua, Altsasuko errealitatea zein den ezagutzeko oso baliagarria da eta!*

# Ordenanza de la tenencia de animales

*Se establece un plazo de adaptación a la normativa de tres meses; la nueva ordenanza entrará en vigor en septiembre*

El Ayuntamiento ha aprobado una ordenanza que tiene por objeto establecer las condiciones sanitarias y de seguridad necesarias para lograr una adecuada calidad de vida de los ciudadanos en su convivencia con los animales (y en especial con los perros).

La elaboración y gestión del censo canino en el término de Altsasu/Alsasua es responsabilidad municipal. Así los propietarios poseedores de los perros residentes en el término municipal, están obligados a la identificación de los mismos al alcanzar los cuatro meses de edad. Esta identificación podrá ser llevada a cabo por los servicios municipales o por clínicas veterinarias o profesionales particulares. En el último caso estarán obligados a notificar las últimas identificaciones realizadas a los servicios municipales para la actualización del censo. Además con la finalidad de actualizar el censo canino es obligación de los propietarios comunicar: las bajas, por muerte o desaparición; las adquisiciones de perros de otros municipios; las modificaciones relativas a la propiedad de los mismos, y los cambios de domicilio de los propietarios.

Al alcanzar los cuatro meses de edad los perros residentes en el municipio están obligados a la vacunación antirrábica y a continuar con el calendario de revacunación establecido. Estas vacunaciones constarán en el correspondiente documento sanitario de identificación animal del que será responsable el propietario. De las vacunaciones realizadas deberá ser informado el Ayuntamiento.

## ¿Atados con correa o sueltos?

En toda la vía pública del casco urbano de Altsasu/Alsasua, y en accesos y lugares comunes de los inmuebles, sólo se permitirá la circulación de perros cuando vayan atados con cadena o correa y conducidos por persona responsable capaz de su control.

Se admitirá que, para su esparcimiento, los animales puedan estar sueltos en aquellos espacios no detallados anteriormente, pero siempre con la presencia próxima de persona responsable del animal y bajo su control.

En cualquier caso, aquellos perros causantes de agresiones anteriores o cuya peligrosidad sea razonablemente previsible, portarán obligatoriamente bozal. En su caso la autoridad en este municipio se reserva el derecho a sancionar la circulación de perros que no cumplan estos requisitos.

## Las deposiciones de los perros

Las personas que circulen con perros están obligadas a impedir que estos hagan sus deposiciones sobre aceras, calzada, parterres, zonas verdes y demás elementos de la vía pública o privada destinados preferentemente al paso o juego de los ciudadanos.



## Infracciones y sanciones

Son infracciones leves según la presente ordenanza, las siguientes: llevar perros en espacios públicos sin ser conducidos mediante correa; ensuciar y no limpiar las deyecciones de los animales de compañía en los espacios públicos; el mantenimiento de animales sin la alimentación necesaria y el mantenimiento de animales en instalaciones inadecuadas desde el punto de vista higiénico sanitario o no autorizadas. Las infracciones leves serán sancionadas con multa de 60 a 150 euros.

La reiteración de faltas leves será considerada infracción grave. Estas serán sancionadas con multa de 150 a 1.500 euros.

Más información: BON nº65 31-5-2006

El conductor del perro estará obligado a recoger y retirar los excrementos producidos por el animal en los lugares anteriores, depositándolos, convenientemente envueltos, en los contenedores situados en la vía pública. Será responsable, en todo caso, de la limpieza de la zona ensuciada.

Para facilitar en la tarea, el Ayuntamiento instalará 14 papeleras provistas de bolsas de plástico. Estas nuevas papeleras estarán situadas en las zonas de mayor afluencia de perros.

## ¿Qué hacer con animales abandonados o muertos?

Los ciudadanos, deberán comunicar a los servicios municipales la existencia de animales presuntamente abandonados. En ese caso no conviene que los ciudadanos les suministren alimentos.

Respecto a animales muertos la ordenanza establece que queda prohibido el abandono de animales muertos en descampados, cauces y demás espacios públicos y privados. Así, cuando su tamaño lo permita, deberán recogerse en bolsas de material impermeable, convenientemente cerradas para su traslado al vertedero de Arbizu.

Por otra parte, en caso de querer desprenderse de cualquier animal de compañía, deberá avisar a la Sociedad Protectora de Animales de Pamplona para que se proceda a su recogida.

## En caso de mordeduras

Las personas mordidas por un perro deberán comunicar el hecho al Ayuntamiento, adjuntando el parte médico correspondiente. Los propietarios o poseedores del animal agresor están obligados a facilitar los datos del animal implicado a la persona agredida o a sus representantes legales y a las autoridades competentes.

Cuando el propietario de un perro sospeche de síntomas de rabia, o si por tal motivo muere el animal se notificará a los servicios sanitarios municipales.



Próximamente el Ayuntamiento señalizará las zonas en las que los perros tienen prohibido el acceso. Estas señales estarán situadas en parques públicos.







## Ordenantza berriak zakurren kakak jasotzeko bete beharra zehazten du

Hori dela eta Altsasuko Udalak plastikozko poltsatxoak izanen dituzten 14 zaborrontzi jarriko ditu. Zaborrontzi horiek zakurrak gehien ibiltzen diren berdeguneetan jarriko dituzte zakurren arduradunek gorozkiak bil ditzaten.

Zakurrekin ibiltzen diren pertsonek galarazi behar dute haiek kaka egitea espaloi, galtzada, parterre, berdegune eta eremu publikoko nahiz pribatuko beste edozein elementuren gainean, herritarrak ibiltzeko edo jostatzeko baitira, lehenik eta behin. Zakurra daramana behartua dago animaliak aipatu tokietan utzitako gorozkiak hartu eta eramatera; behar bezala bilduta sartuko ditu eremu publikoan jarritako edukiontzietan. Betiere, zikindutako tokia garbitzeko ardura izanen du.

Informazio gehiago: 65. NAO (2006-5-31)

# Animaliak edukitzea arautzen duen udal ordenantza behin betiko onartu dute Altsasun

Udal mugapean osasungintza eta segurtasun aldetik behar diren baldintzak ezartzea da ordenantzaren helburua, herritarrek, animaliekin batera bizitzerakoan (zakurrekin bereziki), bizi-kalitate egokia izan dezaten.

Udal mugapean animaliak izateko beharrezkoa da osasungintza aldetik arriskurik ez eragitea, animaliak berak arriskugarri ez gertatzea, hirugarrenei trabarik ez egitea, egokiro edukitzea eta egonlekuak dagozkion higiene-baldintzak betetzea.

### Arau-hausteak eta isunak

ARAU-HAUSTE ARINAK HONAKOAK DIRA: zakurrak eremu publikoetan eramatea uhalez lotu gabe; lagun egiteko animalien gorozkiak bildu gabe uztea eremu publikoan; animaliak behar duten mantenurik gabe edukitzea; eta, animaliak behar bezalako higiene eta osasun baldintzarik ez duten muntaduretan edukitzea, edo baimenik gabekoetan. Arau-hauste arinei 60 - 150 euroko isuna ezarriko zaie. Bestetik, hutsegite arinak errepikatzea arau-hauste larria da eta hauei 150 - 1.500 euroko isuna ezarriko zaie.

### Abandonaturik edo hilik dauden animaliekin zer egin

Kontrolik gabeko animaliek eritasun kutsagarririk zabal ezdezaten eta pertsona eta ondasunei trabarik ez kalterik egin ez diezaien, herritarrek Udalaren osasun zerbitzuei jakinaraziko diete abandonaturik egon daitezkeen animaliak ikusiz gero. Ez da komeni halakoetan herritarrek janaririk ematea.

Debeku da animalia hilak aire zabalean, uberketan eta gainerako eremu publiko nahiz pribatuetan uztea. Animalia hilak, material iragazkaitzezko poltsatan sartuko dira, eta bezala itxita, Arbizuko zabortegira eramanen dira.

### Lagun egiteko animalien gaineko arau orokorrak

Animalien jabeen edo edukitzaileen ardura izanen da behar diren neurriak hartzea, animaliak etxe nahiz lokaletatik kanpora, inork eraman gabe, atera ez daitezen. Beren jabe edo edukitzaileen etxetik kanpora behin eta berriz bakarrik ibiltzen diren animaliak abandonatutzat joko dira eta organo eskudunak atzematen ahalko ditu. Honen ardura da animaliekin zer egin inork erreklamatzen ez baditu legez ezarritako epean.

Espreski debekaturik dago elikagaiak prestatu, erabili eta biltzen diren tokietan animaliak sartzea eta bertan egotea, baita elikagaiak garraiatzeko ibilgailuetan ere. Orobat, debeku da animaliak elikagaiak saldu edo kontsumitzeko establezimenduetan sartzea, baita ondokoetan sartzea ere: kultur eta kirol arloko jendaurreko ikuskizunetako tokietan, erabilera publikoko igerilekuetan, eritetxeetan edo anbulatorioetan eta ikastetxeetan sartzea.

Udalaren eginkizuna da zakurren zentsua prestatu eta kudeatzea Altsasuko udal mugapean. Lau hilabete egitean, udal mugapean bizi diren zakurren jabe eta edukitzaileak beharturik daude haiek identifikatzera. Udal zerbitzuek edo albaitaritza-klinikek edo profesional partikularrek egiten ahalko dute identifikazio lan hori. Azken kasu horretan, egindako identifikazioen berri eman beharko diete Udalaren osasun zerbitzuei, zentsua eguneratu ahal izateko. Gainera, zakurren zentsua eguneratu ahal izateko, zakurren jabeak beharturik daude honako hauen berri ematera: bajak, heriotza edo desagertzea dela medio; beste udalerriren batean zakurrak eskuratu direla; zakurren jabetzari dagokionez gertatutako aldaketak eta jabeen helbide aldaketak.

Udalerrian bizi diren zakurren jabe edo edukitzaileak beharturik daude animaliei amorruaren kontrako txertoa jartzera lau hilabete betetzen dituztenean, eta hortik aitzina ezarrita dagoen birtxertaketa egutegiarekin segitzera.

### Uhala edo katea

Altsasuko herriguneko eremu publiko guztian eta etxeetako sarbide eta leku komunetan zakurrak ibiltzeko katez edo uhalez loturik egon beharko dute, kontrolatzeko gauza den norbaitek gidaturik. Animaliak josta daitezen, aipatu eremuetatik kanpo aske ibiltzea onartuko da, baina beti beharko dute arduradunen bat inguruan haiek kontrolatuko dituena. Nolanahi ere, lehenago noizbait erasorik egin duten zakurrek edota aldez aurretik arriskugarritzat jo daitezkeenek nahitaez eraman beharko dute muturrekoa.

Arriskutsuak izan daitezkeen zakur arrazen zerrenda osatu dute. Arraza horietako zakur guztiek 5 baldintza bete behar dituzte.





Txakurrak uhalez loturik egon behar dira.







Myriam Veragara merkatarien elkarteko lehendakaria da; Gorka García, lehenkari ordea.

## Myriam Vergara y Gorka Garcia:

# *"La situación del pequeño comercio es preocupante y similar al de todos los pueblos, barrios y ciudades"*

**Durante los últimos años han surgido nuevas plataformas comerciales en Alsasua. ¿Cuál es al situación del comercio en nuestra localidad?**

La situación del pequeño comercio es preocupante y similar al de todos los pueblos, barrios y ciudades. Esto viene dado por los grandes cambios estructurales que está experimentando la actividad comercial, la distribución a gran escala, las nuevas conductas de compra-ocio, la irrupción de los productos asiáticos, los comercios que ejercen una competencia desleal en horarios, condiciones de trabajo, compromisos tributarios y otras obligaciones, la desestructuración del sector, y la falta de sensibilidad de las instituciones en cuestiones vitales sobre necesidades de abastecimiento de los pueblos, barrios y cascos urbanos.

Por los que nos encontramos ante una verdadera encrucijada puesto que para afrontar y reaccionar ante estos cambios se nos aconseja una mejor preparación técnica y una apuesta por la calidad y la modernización (un perfil más profesional del comercio al que muchos comerciantes no pueden acometer debido a su complejidad y exigencias, y a que la mayor parte lo gestiona una o dos personas). Por otro lado estamos reaccionando muy tarde ante los cambios en los hábitos de consumo y la contínua y descontrolada implantación de centros, áreas, parques o ciudades comerciales a las que las instituciones les facilita accesos, infraestructuras, aparcamientos, zonas de ocio climatizadas y servicios con los que pueblos y barrios no contamos. Generando así una progresiva pérdida de vida y la desertización urbana, desviando la cadena de abastecimiento y quebrando así el equilibrio social, económico y cultural. En consecuencia, si la gente se va, el comercio se irá detrás.

**¿Qué opinión tenéis respecto al emplazamiento y número de aparcamientos disponibles en Alsasua?**

Recientemente hemos participado en las jornadas sobre movilidad —organizadas por el Ayto. En ellas hemos expuesto algunas reflexiones que se están haciendo dentro de la asociación y que en ningún caso son posturas cerradas. Esperamos que el resultado aclare las verdaderas necesidades relacionadas con los aparcamientos y la movilidad.

**¿Cuáles son los puntos fuertes y cuáles los débiles del comercio local?**

Los fuertes principalmente son la cercanía, el buen servicio y la relación calidad-precio.

Los débiles son los siguientes: la falta de una oferta en común; la pérdida del atractivo del pueblo en servicios y ocio; la mala señalización de servicios y zonas de aparcamientos; y, la descoordinación en la ejecución de obras. Si el pueblo mejora, mejoramos todos y todas.

**Dentro de la Asociación de Comerciantes habéis creado varias comisiones de trabajo...**

Nos hemos dotado de una nueva forma de trabajo, principalmente debida a la paulatina desilusión y desmotivación de los y las asociadas. Así, hemos optado por una forma de trabajo horizontal, el reparto de pequeños trabajos por grupos que informan a la junta y ésta prepara los trabajos para que entre todos y todas podamos tomar decisiones en la Asamblea. En los informes internos se ve de forma sencilla el trabajo de los y las compañeras. De esta forma se facilita el relevo.

**¿Tenéis en mente llevar a cabo alguna nueva iniciativa?**

Tenemos muchos planes pero nuestro reto al menos hasta que cambie la junta (a lo largo de este año), será estabilizar un funcionamiento para garantizar la continuidad de la Asociación. También queremos ampliar la asociación a todo el Comercio Local y estamos estudiando la posibilidad de apertura a sectores como hostelería y servicios.

**¿De cara al futuro qué objetivos tenéis? ¿Tenéis previsto lanzar alguna campaña?**

Formalizar la comunicación que tenemos con el Ayuntamiento, hacerla permanente y estable, y prepararnos para lo que pueda venir en los próximos años.

El grupo de Acciones Comerciales entre otras cosas, está estudiando la posibilidad de editar un catálogo propio sobre la oferta local y las diferentes líneas de productos que se pueden adquirir aquí.

## Altsasuko Dendarien Elkartea gogotsu ari da lanean

47 merkatarik osatzen dute elkartea. Batzar orokorra bi urtean behin berritzen da. Aurten, nola nahi ere, ohiko baino mugimendu gehiago dago elkartearen barruan, izan ere hiru batzorde berri eratu dituzte eta gogoz ari dira lanean.

Ondoko hauek dira sortu dituzten batzordeak: batetik, KANPOKO HARREMANAK; bestetik, FORMAZIOA ETA INFORMAZIOA; eta, azkenik, EKINTZA KOMERTZIALAK. Batzorde horietako bakoitza lau kidez osatua dago.

Altsasuko Dendarien Elkartea (ADE) 1994. urtean sortu zen herriko merkataritza bultzatzeko helburuarekin. Elkarteak formazio eta promozio ekintza bateratuak burutzen ditu eta Altsasuko bizitza sozialeko zati baten ordezkari gisa aritzen da. ADE-k 1983. urtean sortutako Zurekin elkartearen txanda hartu zuen.

**Begi onez ikusten du ADEk eskualde mailako elkartea sortzea?**

Sakanara hedatzeari buruz behin baino gehiagotan aritu izan gara, baina gaur egun ditugun baliabideekin zaila zaigu Sakanako merkatariekin ekintza bateratuak burutzea. Sakanako Partzuergoa osatzen denean parte hartzea espero dugu. Erakunde horrek eskualdeko merkataritzaren beharrak kontuan hartu beharko lituzke eta bideratu eskualdeko merkataritzaren irudi bateratua, egungo eskaintza handituz eta aberastuz. Formazioa sustatzeko eta dirulaguntzak bideratzeko egitura egokia izan daiteke.

Egilea: BIERRIK ELKARTEA Foruen Plaza 23 Altsasu Tel. 948-564 275 bierrik.argitalpenak@topagunea.com